

HEZIKIDETZA O.H.O.KO TESTULIBURUETAN

Lore Erriondo

Zorroagako Lan-Taldea

Honako artikulu honetan, eskolak eskainitako materialaren azterketa azaldu nahi genuke, testuliburuena alegia, hauek ez bait dituzte soilik edukiak erakusten baizik eta kultur eredu zehatz batzuren transmititzaileak dira, ereduon barnerapena ematen delarik.

Hasiera- eta erdi-zikloko esperientzi arloko eta irakurketako testuak izan ziren azterketarako aukeratu genituenak, honako ondorio honetara iritsiz: bai presentzia, protagonismo, egiteko eta lanbide bai eta agertzen diren jolasetan ere, nabarmenki mantentzen dela sexuen arteko desberdinketa, gizonezkoen aldekoa noski.

Hezikidetzaren inguruan, U.E.U.ko Pedagogia sailean, Zorroagako lan-taldeak 1986-87/1987-88 ikas-turteetan egindako azterketak azaldu zituen. Talde honek, emakumea eta hezkuntzaren gai mamitsu eta eztabaidagarriari heltzea erabaki zuen.

1986-87 ikasturtean, eskolak eskainitako materiala aztertu genuen; testuliburuak alegia, hauexek bait dira nagusiki O.H.O.n oraindik ikastetxe gehientsuenetan erabiltzen den material garrantzitsuena. Testuliburu hauek ez dituzte edukiak soilik azaltzen, baizik eta eduki hauen azpitik, kultur eredu zehatz batzu transmititzen dituzte, eta hauen errepikapenez, ereduaren barnerapena gertatzen da.

Azterketa honekin, eskolak, instituzio bezala haurren eskuetan zer nolako materiala jartzen duen aztertu nahi izan genuen.

Aztertu beharreko materiala zehazterakoan, batetik, adin-aukeraketa egin behar genuen, eta hasiera eta erdi-zikloa hautatu genituen; batetik, O.H.O guztia sakonean aztertzea gure mugetatik at gelditzen zelako, eta bestetik, eskolaurrean irakurketa- eta idazketa-prozesuak ematen ez direnez, testuen erabilpena eta ondorioz hautetan oinarritutako azterketa maila honetarako baliagarria ez delako.

Gaiaren aukeraketari dagokionez, esperientzi arloa eta irakurgaiak hautatu genituen, gure ustetan hautetan azalduko bait lirarteke garbienik

gizarte-ereduak (nahiz eta gainontzeko liburuetan ere, nabariago edo estaliago, kultur ereduak azaldu).

Liburuak aukeratzekoan, merkantuan euskaraz dauden liburuetatik, gure informazioen arabera gehien erabiltzen direnak aukeratu genituen (ez dugu uste besterik gabe izenburuak azaltzea beharrezkoa denik); honela bada, esperientzi arloko eta irakurketetako O.H.O.ko 1., 2., 3., 4., eta 5. mailetako argitaletxe desberdinetako liburuak aztertu genituen. Horrela, euskal eskoletan erabiltzen diren liburu guztien artean, gure lagina adierazgarria gertatzea espero genuen.

Berrito ere azpimarratu nahi genuke, guk egindako lan honen helburua, testu hauek azaltzen duten gizartearen sexu ereduak aztertzea izan dela eta ez besterik.

Metodologi aldetik, analisi unitate bezala, pertsonaia hartu genuen: honen azaltze-maiztasuna, ezaugarriak eta ekintzak (adina, sexua, protagonismoa, lanbideak edo zereginak, aktibitateak etab.) aztertu genituelarik.

Aztertutako hamaika testuliburuetatik, 5 hasiera-ziklokoak ziren eta 6 erdi-ziklokoak.

Irudietan ezaugarri desberdinetako pertsonaiak azaldu zaizkigu, eta hauei guk emandako tratamendua emango dizuegu aditzera ondoren:

-Sexu aldagaiari dagokionez, hiru talde azaldu zaizkigu: gizonezkoak, emakumezkoak eta

zehaztu gabeak. Azken talde honetan, sexu-adierazpen garbirik ez zuten irudiak sartu ditugu.

-Adinari dagokionez, lau multzo egin genituen: haurra, gaztea¹, heldua eta zaharra. Adin-adierazpen garbirik ez zegoenean, azaldu zaizkigun pertsonaiak heldutzat hartu ditugu; honela, helduen taldea, oinarrizko talde bezala azalduz.

Guzti hau aztertu ondoren, agertzen diren pertsonaien %69,02a gizonzkoa dela ikusten dugu, eta %30,98a besterik ez (ikus 1. taula) emakumezkoa, arlo desberdinetan kopuru hau antzeko mantentzen delarik; hau da, esperientzi arloa hartuz gero, %69,13 da pertsonaia gizonzkoen kopurua eta %30,37 emakumezkoena, irakurketa-arloan %68,59 izanik gizonzkoena eta %31,41 emakumezkoena (ikus 2. taula).

Presentzia

Presentzia neurtzeko parametroak, hauexek izan dira:

- Sexua: . gizonzkoa
. emakumezkoa
. zehaztu gabeak
- Adina: . haurra
. gaztea
. heldua
. zaharra

Taula hauetan ikus dezakegun bezala, askoz ere maizago agertzen dira adin guztitako gizonzkoak, emakumezkoak baino; hau da, presentziatik bertatik dagoeneko ematen da desberdintasuna, gizonzkoen aldekoa noski, desberdintasun hau berdintsu mantentzen delarik bai maila desberdinen bai eta arloen arabera ere. Ondorioz, aztertutako euskal testuliburu hauetan, sexu arteko desberdintasunen presentzia mantendu egiten dela esan dezakegu.

SEXUA	GIZONEZKOAK					EMAKUMEZKOAK				
	Haur	Gazte	Heldu	Zahar	Batura	Haur	Gazte	Heldu	Zahar	Batura
1.maila	76,67	50	63,5	54,55	70,96	23,33	50	36,5	45,55	29,04
2.maila	60,76	10	68,80	12,5	61,72	39,24	90	31,20	87,5	38,28
3.maila	60,12	61,76	66,36	54,17	64,21	39,88	38,2	33,74	45,83	35,79
4.maila	60,47	73,47	80,72	58,82	76,87	39,53	26,5	19,28	41,18	23,13
5.maila	57,69	70	82,57	80	79,55	42,31	30	17,43	20	20,45
BATURA	66,71	58,26	71,81	54,29		33,29	41,7	28,19	45,71	
GUZTIRA	% 69,02					% 30,98				

1. taula: Presentzia mailaka

	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Esperientzia	69,13	30,37
Irakurketa	68,59	31,41
GUZTIRA	69,02	30,98

2.taula: presentzia arloka

Protagonismoa

Ezaugarri desberdinen arabera pertsonaien kopurua garrantzitsua bada ere, garrantzitsuagoa da pertsonaia hauek momentu bakoitzean betetzen duen paperaren nondik norakoa; honela, sexuen arabera protagonismoaren nagusitasuna agertzen zaigu (Ikus 3. taula). Nagusitasun hau modu honetara definitu dugu:

- Rol nagusia: norik daraman ekintza nagusia.
- Bigarren mailako papera: ekintza daramate, baina bigarren plano batean.
- Betegarriak: ekintzarik betetzen ez duten pertsonaiak, pasiboak direnak.

	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Paper nagusia	% 78	% 22
2. mailakoa	% 69	% 31
Betegarria	% 62	% 38

3.taula: pertsonaien nagusitasun maila

Ondorioz, taula honetan ere, aurrekoetan agertzen zaigunaren antzeko ondorioak atera ditzakegu. Oso nabarmen ikusten da protagonismoa

gizonezkoen irudietan jartzen dela, eta maila guztietako ekintza guztietan, beti ere, askoz ere kopuru txikiagoan agertzen dela emakumezkoa. Bestetik, emakumezkoen kopuru handiena zein kasutan agertzen den aztertzen badugu, protagonismo handiena betegarrietan gertatzen dela ikus dezakegu; hau da, pasiboetan. Hortaz, protagonismo mailan ere sexuari lotutako eta gizonezkoen aldeko desberdintasuna ematen da.

Pertsonaien egitekoak eta lanbideak

Sail honen helburua, gizarteari buruzko erreferenteak nolakoak diren ikustea da. Hemen, pertsonaia desberdinen zereginak eta lanbideak jaso ditugu. Era honetara, batetik, lanbide eta egiteko desberdinak jasotzen ditugu eta bestetik, norik betetzen dituen.

Lanbide eta egitekoak, bi erizpideren arabera sailkatu ditugu: batetik, lanbide-sektoreen arabera (1., 2., 3. eta 4.) eta bestetik, gizarteak egokitzen dion prestijioaren arabera. Bistan da prestijio mailak erabakitzerakoan, ezin izan diogula gure subjektibotasunari ihes egin.

Honela beraz, lanbideak eta egitekoak, sexu, prestijio eta sektoreen arabera sailkaturik gelditzen zaizkigu (Ikus 4. taula).

Taula honetan sexuen arteko desberdintasuna bitara ikusten da: batetik lanbide-moten arabera eta bestetik lanbideen horien prestijioaren arabera gizartearen aurrean.

Prestijioa	A		B		D		GUZTIRA	
	Gizon	Emak.	Gizon	Emak.	Gizon	Emak.	Gizon	Emak.
1.	86,5	13,45	0	0	0	0	%86,5	%13,5
2.	97,06	2,94	100	0	100	0	%98,3	%1,7
3.	80,56	19,44	76,03	23,97	92,62	7,38	%83,6	%16,4
4.	57,75	42,25	79,79	20,21	74,47	25,53	%71,2	%28,8
GUZTIRA	%79,4	%20,6	%79,6	%20,4	%88,4	%11,6	%81,8	%18,2

4. taula: sexu bakoitzari dagozkion lanbideak

Argi ikusten denez, emakumezkoak bigarren mailan jarraitzen du hemen ere.

Jolasak

Jolasa gehienbat haurren munduan ematen denez, honi buruzko testu-liburuen adierazpena nolakoa zen ikusi nahi genuen. Dena den, oso jolas gutxi agertu zaigu eta ez oso esanguratsuak.

Dispertsio handia azaltzen zitzaigunez, erizpide batzu hartu beharrean aurkitu ginen nolabaiteko sailkapena egitearren, eta berau nahiko arbitrarioa dela alde aurretik aitortuz, honelakoa izan da:

- Gorputz-jolasak: kirola, dantza,...
- Adimen-jolasak: esperientzi arloko jolasak, antzerkia,...
- Jolas ludikoak: hauen helburua jolasa bera litzateke, helbururik azaldu ez dutenak.

Modu honetan jolasak, aipatutako erizpide hauen eta sexuaren arabera sailkatuak geldituko litzaizkiguke.

Ondoren, datuak biltzerakoan, adimena lantzen duten jolasetan ez da inolako irudirik aurkitu, mutil ez eta nesketan ere (hemen ere, eredu bat nabari daiteke, nahiz eta sexuari lotuta ez egon, baizik jolasa zer izan daitekeen eta zer ez ideiari buruz). Bestetik, gorputz jolasak edo alderdi fisikoa lantzen dutenei dagokienez, 38 mutil-irudi agertu dira eta 7 neska-irudi. Jolas ludikoei buruz, 45 mutil-irudi agertu dira mota honetako jolasetan eta 33 neska-irudi. Berriz ere, maiztasunean ikusten dugu orokorrean nagusiki mutilen irudiak agertu direla (%68) eta bestetik neskek ez direla ia jolas fisikoak egiten agertzen (%15).

Jasotako datuetatik abiaturik, hauek dira egin daitezkeen azterketetako batzu, baina asko eta asko dira oraindik egin daitezkeenak (ezingo ditugu guztiak hemen azaldu).

Bestetik, gure eritziz, erabiltzen den hizkuntza bera ere aipagarria da. Nahiz eta euskaraz sexu bien terminoez osaturiko hitzak erabili ahal izateko aukera eduki (neska-mutil, gizon-emakume, senar-emazte, osaba-izeba, aitona-amon, seme-alaba, etab.), hauek

alde batetara uzten dira askotan, gizonaen terminoa nagusitzen delarik.

Uste dugu azaldutakoa, nahikoa dela guztiok konturatzeko oraindik ere egungo euskal testuliburuetan sexuen arteko desberdintasuna bultzatzen dela, bai eta emakumezkoenganako diskriminazioa ere.

Salaketa hau eginez gure helburuetako bat betetzen dugu, hau da, guztiak egoeraz ohar daitezen (ez bait da nahikoa testuei itxura moderno eta atsegina ematea). Gure bigarren helburua honako hau litzateke: egoera honek iraun ez dezan, neurriak hartzea (bai testu-egileen artean, bai eta ikastetxeetan ere.)